

2011-10-26an EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURA

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL
PLENO DE LA CORPORACIÓN.
Día 26-10-2011

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Leire Urcelay Letona
Jose Angel Petralanda Gil
Itziar Martínez Iregui
Iñaki Madinabeitia Elorza
Iker Akizu Olabe
Jose Luis Cantero Morcillo
Aitor Urrutia Oyanguren
Juan Luis Merino Sanabria

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamaikako urriaren 26an, arratsaldeko zazpitan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udaltzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las diecinueve horas del día 26 de octubre de 2011, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.



1.- HAUTESKUNDE MAHAJETAKO KIDEAK HAUTATZEKO ZOZKETA.

Datorren azaroaren 22an hauteskunde orokorrak egingo dira. Hauteskunde egun horretarako hauteskunde mahaietako zozketa egin ondoren, eta horrela, indarrean dagoen Hauteskundearen Erregimen Orokorraren Lege Organikoaren 26. artikuluan ezarritakoa bete, Udalbatzarrak aho batez honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa: Hauteskunde mahaietako osaera onartzea eranskinean izendatutako pertsona eta karguekin.

Bigarrena: Alkatearen esku uztea, eskualdeko hauteskunde-batzordeak interesdunei alegazioak eta aitzakiak onartzeagatik hutsik gelditu daitezkeen karguak betetzeko pertsonak zozketaz aukeratzeko ahalmena.

Gai zerrendako hurrengo gaia aztertu aurretik, Alkateak baimena eskatu du bi adierazpen egiteko eta horiek aktan jaso daitezten.

Berlaratuko inork ez du inolako eragozpenik jarri eta, horren aurrean, honako hau adierazi du: (transkribatu egiten da berak horrela eskatuta)

Lehenengo adierazpena: ETA erakunde armatuaren adierazpenaren aurrean gure postura azaldu nahiko nuke. Gure nuke esan guretzat erabaki historikoa dela. Esan, baita ere, ziklo armatuaren amaiera eta gero, eztabaida politikoa egiteko garaia heldu dela. Komentatu ere, badela ordua bi gobernuek ETArekin gatazka politikoa ondoz ondo heltzeko; eta euskal ordezkariok, gu barne, arazo politikoa. Eta azkenik, eskaera bat: guztiok ardura politikoa jokatzeko garaia denez, horren aurrean erantzukizunaz jokatzeko.

Bigarren adierazpena hemen ikusi duzuen kartelaren gainean egin gura dugu: "Eskohitza danona da". Parte hartze eta komunikazio batzordetik heldu zen parte hartze prozesu ireki bat aurrera eramateko proposamena. Helburua izango da herritar danongatik jasotzea iritzi, iradokizun, ideiak... desberdinak. Herritar denei dago zabalik, eta hori guztia aurrera eramateko bi lan egingo ditugu. Alde batetik bilera sektorialak egingo ditugu, arloetakoak. Arlo bakoitzak (gizarte, hirigintza, kultura, garapen...) bere bilera egingo du bere gaiak jorratzeko. Bilera horiek azaroaren lehenengo astean izango dira. Eta, bestetik, parte hartze prozesu zabal bat, "world coffe" metodologian oinarrituta, egingo da azaroaren 12an, 10etatik 13:00etara, Eskoriatzako kiroldegian. Eta hemendik gonbidatzen ditut herritar denak ekintza horretan parte hartzera. Komenigarria izango litzateke etortzea pentsatzen dutenek bere asistentzia konfirmatzea, batez ere, logistika kontuetarako. Eta, "world coffe" metodologian oinarritu dugunez, ba, nork berak bere taza ekartzea proposatzen dugu. Azken finean, Eskoriatzarrok, danok, desberdinak gara eta pentsatzen dugu bakoitzak etxean dituen taza eta edalontziak desberdinak direla eta orduan horrelaxe gura dugu irudikatzea. Parte hartzera animatzen dot jendea.



2.- UDAL ORDENANTZA FISKALAK 2012RAKO.

Bertaratutako zinegotzi guztiek dute Hazienda batzorde informatzaileak 2012. urterako ordenantza fiskalei buruz egindako diktamenaren kopia.

Diktamenari buruz eztabaidatu ondoren, Alkateak bototara jarri du aipatutako diktamena.

Urrutia jaunaren aurkako botoarekin eta gainontzeko udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa: 2011rako ordenantzei buruz Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamena hasiera batean onartzea (eranskin gisa doa).

Bigarrena: Hartutako erabakiak jendaurrean jartzea 30 lanegunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharrak egin ditzan.

Hirugarrena: Hartutako erabakiak, Ordenantzen aldaketak eta horien eranskinak behin betikoak izango dira, berriro erabakirik hartu gabe, jendaurrean jarritako epean inolako erreklamaziorik egiten ez bada.

2011ko urriaren 19ko bilkuran hartutako erabakia betez, ondoren transkribatzen da bere botoa justifikatzeko Urrutia jaunak esandakoa: "Guk, berriz, ez dugu apoiatu behar; zeatik, hemen aitzatzen dituzun gauza batzuk interesanteak iristen jakunak; eta nakarren propuestia da azterketia Hazienda komisinoan ordenantza fiskalak baina zelabait urte guztian zehar. Ze, hemen erabiltzen da, esate baterako, IPCa, Euskal Komunitate Autonomokoa, eta gero erabiltzen delako medixa bat, bailarakoa edo... Guri hori pentsatzen jaku kriterixo bat, zelabait, egon leikien defizit baten apoiatuta, norberak benetan gura lukeena igoteko ordenantza fiskalak. Horregatik ez dugu pentsatzen hori dela egin beharreko plateamentua. Azken batean, hemen ikusi behar duguna da, ze zerbitzu ematea nahi ditugun, ze kostu daukien, eta segun hori, ordenantzak fiskalak ipini. Ez halako medixa baten, zergatik ordenantza fiskalak eta presupuestoak dira 2 gauza oso propixuak, gure dot esan: Eskoriatzan, ba kanposantuan ematen den zerbitzuak igual gutxi dauka zer ikusi Aretxabaletan ematen den, edo Mondragon ematen den, edo Oñatin ematen den moduan. Orduan, horrekin kriterixorekin ez gaz konforme eta guk ezetza bota behar dugu.

3.- TELESKO UDAL TELEBISTAKO ORDENANTZA FISKALA 2012RAKO.

Bertaratutako zinegotzi guztiek dute Hazienda batzorde informatzaileak 2012. urterako ordenantza fiskalari buruz egindako proposamenaren kopia.

Diktamenari buruz eztabaidatu ondoren, Alkateak bototara jarri du aipatutako diktamena.

Bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa: Telesko Udal Telebistaren 2012rako ordenantzari buruz Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamena hasiera batean onartzea (eranskin gisa doa).



Bigarrena: Hartutako erabakiak jendaurrean jartzea 30 lanegunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharra egin ditzan.

Hirugarrena: Hartutako erabakiak, Ordenantzen aldaketak eta horien eranskinak behin betikoak izango dira, berriro erabakirik hartu gabe, jendaurrean jarritako epean inolako erreklamaziorik egiten ez bada.

Urrutia jauna izena aldatzearen alde agertu da, horrela, herritar askorentzat garbi ez dagoen kontua argitzeko, eta gogorarazi du beste bilera batean egindako eskaera Teleskori buruz, bere osotasunean, gogoeta egiteko.

4.- GAI ZERRENDAN GAI BAT SARTZEA BERRESTEA.

Aho batez erabaki da gai zerrendan honako gai hau sartzea:

Jose Arana Fundazioko Patronoen Juntarako udal taldeen ordezkariak izendatzea.

5.- “SAN PEDRO AUZOAREN BERRURBANIZAZIO PROIEKTUA- 1 ZENBAKITIK 9 ZENBAKIRA ARTE- PROIEKTUAN AURREIKUSITAKO OBRAK ESLEITZEKO BALDINTZA EKONOMIKOEN ETA ADMINISTRATIBOEN AGIRIA ONARTZEA ETA KONTRATAZIO ESPEDIENTEA HASTEA.

Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa: “SAN PEDRO AUZOAREN BERRIURBANIZAZIO PROIEKTUA – 1 zenbakitik 9 zenbakira arte“ proiektuan aurreikusitako obrak kontratatzeke espedientea hastea. Kontratazio espedienteak tramitazio arrunta izatea.

Bigarrena: Kontratua prozedura irekiz esleitzea; deialdia 299.932,48 €-ko kontratazio aurrekontuarekin egitea, eta gastua 0101.601.511.00.02 partidaren kontura baimentzea.

Hirugarrena: Baldintza administratiboan agiria onartzea.

Laugarrena: Lehiaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen eskakizunetan iragartzea.

6.- TXUKUNBERRI OSOKO ZERBITZUAK ENPRESAREKIN SINATUTAKO LANKIDETZA HITZARMENARI BURUZKO ERABAKIA.

2011ko otsailaren 1ean lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Eskoriatzako Udalak eta TXUKUNBERRI OSOKO ZERBITZUAK S.L. enpresak Eskoriatzan bazterketa egoeran edo bazterketa arriskuan dauden pertsonen laneratzea sustatu eta laguntzeko.

Aurreko paragrafoan aipatutako helburuetarako, eta aipatutako hitzarmenaren arabera, Udalak jubilatuen taberna utzi zion TXUKUNBERRI OSOKO ZERBITZUAK S.A. enpresari, horren ustiaketa jendea laneratzeke tresna bezala erabil zezan. Gaur egun, TXUKUNBERRI OSOKO ZERBITZUAK S.A. enpresa lokala erabiltzen ari da.



TXUKUNBERRI OSOKO ZERBITZUAK S.A. enpresak aurkeztutako ustiapen-kontuaren arabera, tabernako jarduerak galerak sortzen ditu, ez Udalak ez horrekin lankidetzan ari den enpresak bere gain hartzen jarraitu ezin dituztenak. Horregatik, alde bietan hartu dute bere garaian sinatutako hitzarmena indarririk gabe lagatzeko egokitasuna.

Aurrez esandako guztian oinarriturik, eta Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa: Adostasunez, eta datorren azaroaren 1etik aurrerako eraginarekin, Eskoriatzan bazterketa egoeran edo bazterketa arriskuan dauden pertsonen laneratzea sustatu eta laguntzeko 2011ko otsailaren 1ean Eskoriatzako Udalaren eta TXUKUNBERRI OSOKO ZERBITZUAK S.L. enpresaren artan sinatutako lankidetzaren hitzarmena baliogabetzea.

Bigarrena: Sortutako galerak finantzatzeko Udal honek bere gain hartu beharreko kopuruari buruz erabakiren bat hartu ahal izateko, TXUKUNBERRI OSOKO ZERBITZUAK S.A. enpresari tabernaren ustiaketaren azken balantze-kitapena (hau da, 2001eko urriaren 31ra artekoa), eta horrekin batera, gastuak eta sarrerak justifikatzeko dokumentuak, 2011ko azaroaren 10a baino lehen aurkezteko eskatzea.

Hirugarrena: TXUKUNBERRI OSOKO ZERBITZUAK S.A. enpresari adieraztea hitzarmenaren indarraldia datorren urriaren 31n amaituko dela, eta beraz, taberna, bere esku utzitako instalaziok eta hitzarmena sinatu zenean inbentarioan jaso eta emandako materiala Udalaren esku jarri beharko duela inolako kargarik gabe eta jasotako egoera berean.

7.- JUBILATUEN TABERNA-ARETOA USTIATZEKO ESKUBIDEAREN BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENA.

Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak ondorengo proposamena egin du:

Gizarte Zerbitzuetako batzordeak, jubilatuen taberna prozedura irekiaz esleitzeko prozesuak luze jo dezakeela ikusirik, eta taberna itxita ez edukitzea helburu izanik, bitarteko adjudikazioa bat egitea proposatzen dio udalbatzarrari. Bitarteko lan hori egiteko hautatuko den pertsonak ondorengo baldintzak bete beharko ditu.

Derrigorrezko baldintza:

Eskoriatzan erroldatuta egotea; Langabezian egotea; Tabernan esperientzia izatea.

Baldintza puntuagarriak:

Ahozko euskara maila izatea; Lan elkarrizketa gainditzea.

Udalbatzarrak, aho batez, proposamena onartzea ERABAKI DU.



8.- ESKORIATZAKO OLAZAR JUBILATU ETXEKO TABERNA-ARETOA USTIATZEKO ESKUBIDEA ESLEITZEKO LEHIAKETA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA JURIDIKOEN, EKONOMIKOEN ETA ADMINISTRATIBOEN AGIRIA ONARTZEA.

Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa: Olazar jubilatutako etxe-aretoa ustiatzeko eskubidea esleitzeko lehiaketa arautu behar duen baldintza ekonomiko-administratiboaren agiria onartzea, eta zortzi eguneko jendaurrean jartzea nahi duenak erreklamazioak jar ditzan. Jendaurrean dagoela jakinarazteko iragarkia jarriko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki oholean.

Bigarrena: Lehiaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragartzea.

9.- TAXI ZERBITZUAREN TARIFA URBANOAK 2012. URTERAKO.

Alkate jaunak horrela proposatuta, gaia erabakitzeke gelditu da.

10.- JOSE ARANA FUNDAZIOKO PATRONOEN JUNTARAKO UDAL TALDEEN ORDEZKARIAK IZENDATZEA.

Udal taldeek horrela proposatuta, Jose Arana Fundazioko Patronoen Juntako kide izateko ondorengo pertsonak izendatzea ERABAKI DU Udalbatzarrak:

- Maria Purificación Regidor Varela, EAJ/PNV taldeak proposatuta.
- Arantza Iregui Villar eta Dorleta Lezeta Uribeetxebarria, BILDU taldeak proposatuta.
- Iñaki Madinabeitia Elorza, EEE taldeak proposatuta.
- José Luis Cantero Morcillo, PSOE-EE taldeak proposatuta.
- Juan Luis Merino Sanabria, EB taldeak proposatuta.

11.- OHIKO PLENOAK EGITEKO EGUNA ALDATZEA.

Kontuan izanik asteazkenetan udal idazkaria euskara ikastaroetara joan behar izaten dela, Alkateak ohiko plenoak egiteko eguna hilaren hirugarren ostegunera aldatzea proposatu du. Gainontzeko kontuak 2011ko ekainaren 23an hartutako erabakian jaso bezala mantentzen dira.

Proposamena aho batez onartzea erabaki da.




12.- BEASAIN-BERGARA AUTOBIDEAREN OBRAK GELDITZEAREN AURKAKO MOZIOA

Hitza eman ondoren, Urrutia jaunak bere udal taldeak aurkeztutako mozioa irakurri du.

Hona hemen mozioa hitzez hitz:

EAJ-PNV-ren Udal Taldeak BEASAIN-BERGARA autobidearen obrak gelditzearen aurka aurkeztutako mozioa.



Gipuzkoak, mugikortasun eta bide-azpiegituren sistema aurreratua eraikitzen dihardu, gipuzkoarrantzat eroso eta egokia. Gipuzkoako Biribilgunea Gaitasun Handiko Errepide-sarea da, eta, hain zuzen, lurraldearen eskualdeen arteko lotura areagotzen ari da errepide berrien arteko loturari esker: Eibar-Vitoria/Gasteiz AP-1, Urumeako Autobia, Donostiako bigarren saihesbidea, Beasain-Bergara ardatza, eta AP-8aren handitzea eta berrikuntza. Hauek guztiak beharrezkoak dira, baldin eta herri aurreratu baten alde egin nahi badugu.

Gipuzkoako Foru Aldundiak iragarri du Beasain eta Bergara arteko autobidearen lanak gelditu egingo dituela. Eraikitze-lan hauek gelditzeak, Debagoiena nahiz Goiherri bailaretatik egunero errepidean dabiltzan langile eta ikasleentzat atzerapen onartezina ekarriko du.

Beasain eta Bergara arteko autobideak bi bailara lotuko ditu beharrezko errepide moderno eta eroso baten bitartez. Debagoiena Goiherriekin lotzeaz gain, Nafarroarekin ere gure lotura errazago eta behar bezalako kondizioetan egingo da. Goiherriko bailara berriz, Debagoienarekin ez ezik, Bizkaiarekin modu erosoago batez komunikatuko da. N-I eta AP-1 lotuko dituen gaitasun handiko errepide honek Euskal Herriaren bertebrazioan pauso handia suposatzen du.

Ondorioz, Eskoriatzako Udal Bilkurari proposatzen diogu Gipuzkoako Foru Aldundiari eska diezaiola, jadanik Urretxun hasita dauden obrak ez gelditzeko eta bereziki Deskargako tunelaren zatia, Urretxu eta Antzuola artean dagoena, lehenesteko.

Eskoriatzan, 2011ko Urriak 7an.

ESKORIATZAKO UDALA	
2011 URR 14	
SARRERA	IRTEERA
1563	—

ERREMENTEI BATZOKIA



Eztabaidatu ondoren bozketa egin da. Madinabeitia eta Akizu jaunen abstentzioarekin, Merino jaunaren aurkako botoarekin, eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideen aldeko botoekin, Udalbatzarrak mozioa onartu du. 2011ko urriaren 19an hartutako erabakia betez, ondoren jasotzen da Urrutia jaunak esandakoa BILDUren botoa ezagutu ondoren (Alkate jaunari zuzendu zaio): Ondo etorrixat baietza bota behar baduzue. Eman duzuen arrazoiengatik, egiten joan zaren diskurtsoarengatik, konklusio samurragoa zen ezetza baietza baino. Arrazoi gehixago eman dira ezetza esateko, baina, azkenean, baietza boteten da eta ni poztu egiten naz. Eta bi gauza baino ez: errepiden gastua, propixo, gastua baino gehixago inbertsioa da; eta bi, zorpetze modeluan eruan da gehixao inbertsioetaraino beste ezertarako baino.

13.- OHZ-RI BURUZKO MOZIOA.

Jarraian transkribatzen da Eskoriatzako Ezkerra udal taldeko bozeramaileak aurkeztutako mozioa.



ESKORIATZAKO UDALA

2011 URR 2 0

SARRERA

IRTEERA

1596

—

Juan Luis Merino Sanebría
Eskoriatzako Ezkerreko udal taldeko bozeramaile

OHZ-RI BURUZKO MOZIOA

Herritarrek, alderdi politikoek, sindikatuek eta erakunde publikoek urteak daramatzate etxebizitza hutsak mobilizatzeko neurri eske. Kontua da, injustizia sozial nabarmena dela milaka etxebizitza inaktibo irabilerik eta erabigarritasun sozialik gabe dagoen bitartean, milaka pertsona etxebizitza duina eskuratu ezinda egotea. Era berean -eta hau da saihestu gura dena-, astakeria ekologikoa eta ekonomikoa da lurzoru berriak irakuntzarako hartu eta eraikin berriak egitea, lehendik eraikitako ondarea ahalik eta gehien aprobetxatu gabe.

Hiru lurralde historikoetako batzar nagusiek etxebizitza hutsen ondasun higiezinaren gaineko zergan (OHZ) % 50eko errekarria ezartzeko proposamena onartu zuten 2003ko martxoan eta apirilean, udal eta foru hauteskundearen bezperatan. Onarritako arauak hitzez hitz kopiatzen zuten PPren Gobernuak hiru hilabete lehenago Diputatuen Kongresuan onartutakoa. Estatuko arauak zein aldundietakoek erregelamenduz garatzea eskatzen zuten aplikagarri izateko, baina, euskal ogasunetako eta estatuko ogasunetako arduradun politikoek erabaki politikoetatik, ez da inoiz horrelakorik egin.

2006. urtean, Eusko Legebiltzarrak ere foru aldundiei eskatu zien beharrezko neurri guztiak sustatzeko zailtasun handienak dituzten sektoreei etxebizitza eskuratzeko errazteko, besteak beste, eta batez ere, etxebizitza hutsen mobilizazioan laguntzea, eta zehazki, OHZ errekarriak jartzea.

Euskal udal askok sartu dute errekarria hori beraien ordenantza fiskaletan, baina, ogasuneko arduradunek nahita hartutako jokabidearengatik, ezin izen dute aplikatu, ez baitute garatu hori egiteko beharrezkoa den erregelamendua.

Behin eta berriz esan dute arrazoi teknikoengatik ezinezkoa dela erregelamendua egitea, baina, gure inguruko herrialdeetan zerga zigorra jarzen zaie etxebizitza hutsen kasu baterako, Frantzia, Erresuma Batuan, Danimerkan, Holandan edo Italian), eta, aldundietako arduradunak aurkeztu ere aurkeztu zaizkion erregelamendua egiteko eredu bideragarriak. Horietatik guztietatik, ondorioztatu daiteke jokabide horren atzetik arrazoi politikoak daudela, eta ez teknikoak.

8 urte pasa ondoren arauak bete gabe, hiru lurralde historikoetako batzar nagusietan eta foru aldundietan legegaldia hasi berri dugunean, zerga aldaketaren beharri buruzko eztabaida hasita, aste dugu inoiz baino beharrezkoagoa dela konpondu gabeko arazo hau konpontzea eta, behingoz, etxebizitza hutsa mobilizatzeko politika eraginkorrek hartzea, egungo pizgarriak zerga zigo-rez osatuz. Horietatik, Eskoriatzako Ezkerreko udal taldeak ondorengo mozioa onartzea proposatzen du:

Izaera iraunkorrez hutsik egoten diren egoitza-erabilerako inmuebiloi, 2012ko ekitaldian, ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuota likidoan % 150eko errekarria aplikatu ahal izateko beharrezko erregelamendua berehala onartzeko eskatzea Foru Aldundian.

Sin.:



Mozioa aurkeztu ondoren jakinarazi du Eskoriatzako Ezkerra udal taldeko bozeramaileak eta Euskal Sozialistak udal taldeko bozeramaileak azken paragrafoan aldaketa bat egitea adostu dutela, eta paragrafo hori horrela gelditzea proposatzen dutela:

Izaera iraunkorrez hutsik egoten diren egoitza-erabilerako inmiebleei, datozten ekitaldietan, ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuota likidoan % 150era arteko errekarua aplikatu ahal izateko beharrezko erregelamendua ahalik eta lasterren onartzeko eskatzea Foru Aldundiari.

Denak jakinaren gainean egonik, botoetara jarri da mozioa aipatutako aldaketarekin.

Madinabeitia eta Akizu jaunen abstentzioarekin, eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideen aldeko botoekin, Udalbatzarrak mozioa onartu du.

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat ematen da bilkura arratsaldeko zortziak eta erdietan. Eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.



MAHAIKIDEEN ZOZKETA

HERRIA: ESKORIATZA
BARRUTIA: 01 SEKZIOA: 001 MAHAIA: A
HAUTESLEKUA: KULTUR ETXEA
HELBIDEA: . HIDALGA KALEA 1

MAHAIBURUA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: A0816 IKASKETA MAILA: 4
Izena: KEPA ISASMENDI GABILONDO
Identifikatzailea: 72455938G
Helbidea: . OLAZAR AUZOA 1 SOLAIRUA P02 ATEA EZK.
Posta kodea: 20540

MAHAIBURUAREN 1. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: A0032
IKASKETA MAILA: 4
Izena: XABIER AGUIRIANO OYON
Identifikatzailea: 72756730W
Helbidea: . SANTA ANA AUZOA 11 SOLAIRUA P01 ATEA ESK.
Posta kodea: 20540

MAHAIBURUAREN 2. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: A0748
IKASKETA MAILA: 4
Izena: MIKEL HERRANZ ESNAL
Identifikatzailea: 72747070W
Helbidea: . SAN PEDRO AUZOA 17 SOLAIRUA P03 ATEA A
Posta kodea: 20540

1. BOKALA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: A0754 IKASKETA MAILA: 4
Izena: IÑAKI HERRERA AZCARRAGA
Identifikatzailea: 72577907G
Helbidea: . GAZTAÑADUI KALEA 27 SOLAIRUA P03 ATEA F
Posta kodea: 20540

1. BOKALAREN 1. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: A0599
IKASKETA MAILA: 3
Izena: EMILIO GARCIA LUQUEZ
Identifikatzailea: 16268833J
Helbidea: . INTXAURTXUETA AUZOA 25 SOLAIRUA P04 ATEA C.
Posta kodea: 20540

1. BOKALAREN 2. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: A0819
IKASKETA MAILA: 4
Izena: MIRIAM ISASMENDI MATA
Identifikatzailea: 72752712D
Helbidea: . EDUARDO GOROSARRI PLAZA 7 SOLAIRUA P04 ATEA ESK.
Posta kodea: 20540

2. BOKALA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: A0574 IKASKETA MAILA: 4
Izena: MILAGROS GARATE ASTIGARRAGA
Identifikatzailea: 15387701B
Helbidea: . OLAZAR AUZOA 6 SOLAIRUA P01 ATEA EZK.



Posta kodea: 20540

2. BOKALAREN 1. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: A0138
IKASKETA MAILA: 2

Izena: FELIPE ARRESE ALBERDI
Identifikatzailea: 72410584Y
Helbidea: . MEDIOLA ELIZATEA 19 SOLAIRUA P01
OLABE-BEKOA
MENDIOLA

Posta kodea: 20540

2. BOKALAREN 2. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: A0704
IKASKETA MAILA: 2

Izena: M CELIA GOROSTIZA URIBE
Identifikatzailea: 16236391R
Helbidea: . OLAZAR AUZOA 9 SOLAIRUA P02 ATEA ESK.
Posta kodea: 20540

HERRIA: ESKORIATZA

BARRUTIA: 01 SEKZIOA: 001 MAHAIA: B

HAUTESLEKUA: KULTUR ETXEA

HELBIDEA: . HIDALGA KALEA 1 1

MAHAIBURUA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: B0130 IKASKETA MAILA: 4

Izena: MARIA JOSE MALTRAS RODRIGUEZ
Identifikatzailea: 44686062Y
Helbidea: . INTXAURTXUETA AUZOA 23 SOLAIRUA P03 ATEA C.
Posta kodea: 20540

MAHAIBURUAREN 1. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: B0161
IKASKETA MAILA: 4

Izena: ALMUDENA MARTIN GARCIA
Identifikatzailea: 16276886Q
Helbidea: . INTXAURTXUETA AUZOA 8 SOLAIRUA P04 ATEA C.
Posta kodea: 20540

MAHAIBURUAREN 2. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: B0564
IKASKETA MAILA: 4

Izena: MIREN BEGOÑA SAENZ-AZCUNAGA GUERRERO
Identifikatzailea: 18591156A
Helbidea: . INTXAURTXUETA AUZOA 32 SOLAIRUA P02 ATEA EZK.
Posta kodea: 20540

1. BOKALA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: B0787 IKASKETA MAILA: 4

Izena: JUAN CARLOS ZUBIA URIBARREN
Identifikatzailea: 72561901Y
Helbidea: . INTXAURTXUETA AUZOA 6 SOLAIRUA P04 ATEA C.
Posta kodea: 20540

1. BOKALAREN 1. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: B0734
IKASKETA MAILA: 4



Izena: JUAN MARIA USANDIZAGA ZUBIZARRETA
Identifikatzailea: 15356770S
Helbidea: . GAZTAÑADUI KALEA 27 SOLAIRUA P03 ATEA A
Posta kodea: 20540

1. BOKALAREN 2. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: B0143
IKASKETA MAILA: 3

Izena: JOSE MIGUEL MARGUSINO APARICIO
Identifikatzailea: 72447470T
Helbidea: . INTXAURTXUETA AUZOA 36 SOLAIRUA P04 ATEA EZK.
Posta kodea: 20540

2. BOKALA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: B0573 IKASKETA MAILA: 2

Izena: ROSA MARIA SAGASTA VALENTIN
Identifikatzailea: 15370099G
Helbidea: . INTXAURTXUETA AUZOA 7 SOLAIRUA P01 ATEA E
Posta kodea: 20540

2. BOKALAREN 1. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: B0666
IKASKETA MAILA: 2

Izena: MARIA JOSE SOUTO SANTOS
Identifikatzailea: 72732817D
Helbidea: . INTXAURTXUETA AUZOA 19 SOLAIRUA P03 ATEA EZK.
Posta kodea: 20540

2. BOKALAREN 2. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: B0124
IKASKETA MAILA: 4

Izena: MONICA MADINABEITIA MEDRANO
Identifikatzailea: 15385588Z
Helbidea: . MEDIOLA ELIZATEA 22 ATEA EZK.
MENDIOLA
Posta kodea: 20540

HERRIA: ESKORIATZA
BARRUTIA: 01 SEKZIOA: 002 MAHAIA: A
HAUTESLEKUA: KULTUR ETXEA
HELBIDEA: . HIDALGA KALEA 1

MAHAIBURUA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: A0525 IKASKETA MAILA: 4

Izena: IGOR FERREIRA FERREIRA
Identifikatzailea: 15386402T
Helbidea: . OLAETA PLAZA 2 POR 2 SOLAIRUA P04 PTA ESK.
Posta kodea: 20540

MAHAIBURUAREN 1. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: A0039
IKASKETA MAILA: 4

Izena: ESTHER AGUIRREOLEA IZQUIERDO
Identifikatzailea: 34082496S
Helbidea: . MAZMELA ELIZATEA 33 POR 33 SOLAIRUA B
ISAS-BIRIBIL
MAZMELA



Posta kodea: 20540

MAHAIBURUAREN 2. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: A0007
IKASKETA MAILA: 4

Izena: MERCEDES AGEA COCERA
Identifikatzailea: 15369866R
Helbidea: . OLAETA PLAZA 1 SOLAIRUA P01 ATEA EZK.
Posta kodea: 20540

1. BOKALA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: A0617 IKASKETA MAILA: 2

Izena: ANA GOMEZ AREVALO
Identifikatzailea: 30184740T
Helbidea: . DORLETA AUZOA 13 SOLAIRUA P04 ATEA EZK.
Posta kodea: 20540

1. BOKALAREN 1. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: A0699
IKASKETA MAILA: 4

Izena: MARTA AGUSTINA HURTADO CABALLERO
Identifikatzailea: 72447648V
Helbidea: . DORLETA AUZOA 17 SOLAIRUA P03 ATEA EZK.
Posta kodea: 20540

1. BOKALAREN 2. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: A0198
IKASKETA MAILA: 4

Izena: KARLOS AZKARATE CAÑAMAQUE
Identifikatzailea: 16276189D
Helbidea: . DORLETA AUZOA 2 SOLAIRUA P02 ATEA EZK.
Posta kodea: 20540

2. BOKALA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: A0230 IKASKETA MAILA: 3

Izena: GORKA FELIX BARANDIARAN PANGUA
Identifikatzailea: 72575232C
Helbidea: . AINGERU GUARDA PASEALEKUA 4 ATEA ESK.
Posta kodea: 20540

2. BOKALAREN 1. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: A0154
IKASKETA MAILA: 3

Izena: JOSE IGNACIO ARREGUI AGUIRRE
Identifikatzailea: 15348115P
Helbidea: . SAN JUAN KALEA 1 SOLAIRUA P01 ATEA A
Posta kodea: 20540

2. BOKALAREN 2. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: A0491
IKASKETA MAILA: 3

Izena: JUAN JOSE EXPOSITO PORRIÑO
Identifikatzailea: 16259294L
Helbidea: . OLAETA PLAZA 9 SOLAIRUA P01 ATEA EZK.
Posta kodea: 20540

HERRIA: ESKORIATZA
BARRUTIA: 01 SEKZIOA: 002 MAHAIA: B



HAUTESLEKUA: KULTUR ETXEA
HELBIDEA: . HIDALGA KALEA 1

MAHAIBURUA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: B0200 IKASKETA MAILA: 4
Izena: ANDONI MUGICA ULACIA
Identifikatzailea: 78864864A
Helbidea: . ARANA KALEA 2 SOLAIRUA P03 ATEA B
Posta kodea: 20540

MAHAIBURUAREN 1. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: B0608
IKASKETA MAILA: 4
Izena: MAITE URIBEECHEVARRIA LEGORBURU
Identifikatzailea: 44330704K
Helbidea: . HIDALGA KALEA 16 SOLAIRUA P02 ATEA EZK.
Posta kodea: 20540

MAHAIBURUAREN 2. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: B0029
IKASKETA MAILA: 4
Izena: JUAN CARLOS KORTAZAR URIBESALGO
Identifikatzailea: 72567562D
Helbidea: . ARANBURUZABALA KALEA 8 SOLAIRUA P03 ATEA BZ
Posta kodea: 20540

1. BOKALA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: B0556 IKASKETA MAILA: 4
Izena: JOSE IGNACIO ULLIBARRI-ARANA ERRASTI
Identifikatzailea: 72712180A
Helbidea: . MAZMELA ELIZATEA 3 SOLAIRUA BEHEA
MAZMELA
Posta kodea: 20540

1. BOKALAREN 1. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: B0069
IKASKETA MAILA: 3
Izena: MAITE LECETA OLACIREGUI
Identifikatzailea: 18592528H
Helbidea: . ARANBURUZABALA KALEA 50 SOLAIRUA P03 ATEA ESK.
Posta kodea: 20540

1. BOKALAREN 2. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: B0267
IKASKETA MAILA: 3
Izena: IGONE ORUETA ARRESE
Identifikatzailea: 72719828S
Helbidea: . MARIN ELIZATEA 15 SOLAIRUA B ATEA EZK.
MAÑARTE
MARIN
Posta kodea: 20530

2. BOKALA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: B0643 IKASKETA MAILA: 4
Izena: MIKEL URZELAI URIBEETXEBARRIA
Identifikatzailea: 72572211N
Helbidea: . SAN JUAN KALEA 3 SOLAIRUA BEHEA
Posta kodea: 20540

2. BOKALAREN 1. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: B0573
IKASKETA MAILA: 4
Izena: FELIX MARIA URIBE ALTUNA



Identifikatzailea: 72565844Q
Helbidea: . ARBIÑOSTE KALEA 7 SOLAIRUA P01
Posta kodea: 20540

2. BOKALAREN 2. ORDEZKOA - ZERRENDAKO HURRENKERA ZENBAKIA: B0597
IKASKETA MAILA: 4

Izena: MIREN URIBE-ETXEBARRIA BELOKI
Identifikatzailea: 72563801C
Helbidea: . SAN JUAN KALEA 14 SOLAIRUA P03 ATEA EZK
Posta kodea: 20540



ORDENANTZAK. Proposamena bateratua

Lehenengoa: Udal zerga bakoitzeko eta guztietako ordenantza fiskaletan ondorengo baldintzak sartzea hobaria jaso ahal izateko:

Testua.

1. Ordenantza honetan aurreikusitako edozein hobari jaso ahal izateko, derrigorrezkoa izango da subjektu pasiboak ondorengo baldintzak betetzea:

A.- Udalari ordaindu beharreko zergak kitatuta edukitzea.

B.- Pertsona fisikoen kasuan, Eskoriatzan erroldatuta egotea zergaren sortzapen-unean. Pertsona juridikoen kasuan, egoitza soziala Eskoriatzan izatea.

Ordainketa subjektu talde batek egin behar duenean (jabekideak eta abar), talde horretako kideek baldintzok betetzen dituzten portzentaje bera aplikatuko zaio hobariari ere.

Bigarrena: Zergei dagokienez, jakinarazten da 2010eko irailetik 2011ko irailera arteko KPIa % 3,0 izan dela. Era berean, ondorengo proposamenak egin dira:

LANDA ETA HIRI IZAERA DUTEN ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

TASAK ONDORENGO MODUAN IGOTZEA PROPOSATZEN DA:

Hiri-izaerakoak:

- INDUSTRIALDEAK: Egungo karga tasa 0,3408 da. Euskadiko Autonomia Erkidegoko KPlak irailetik irailera izandako igoera ezartzea proposatzen da. Igoera hori balio katastralaren igoera kontuan izan gabe aplikatuko litzateke.
- GAINONTZEKO GUNEAK: Egungo karga tasa 0,1932 da. Euskadiko Autonomia Erkidegoko KPlak irailetik irailera izandako igoera ezartzea proposatzen da. Igoera hori aplikatzeko, balio katastralaren igoera hartuko da kontuan, eta horrela, azken horren igoerari tarifarena gehituta KPlaren bestekoa izan beharko da.

Landa izaerakoak: Egungo karga tasa 1,1240 da. Euskadiko Autonomia Erkidegoko KPlak irailetik irailera izandako igoera ezartzea proposatzen da. Igoera hori aplikatzeko, balio katastralaren igoera hartuko da kontuan, eta horrela, azken horren igoerari tarifarena gehituta, KPlaren bestekoa izan beharko da.

Hobariari dagokienez, bere horretan lagatzea proposatzen da. Honako hauek dira:

3.4. artikulua. Erregelamenduz araututako baldintzen arabera etxebizitza erabilerako higiezin bat luzaroan hutsik dagoela ziurtatzen bada, zergaren kuota likidoari %150eko errekarua ezarriko zaio. Errekargu hori zergaren subjektu pasiboari eskatuko zaie, eta paragrafo honetan aurreikusi gabekoetarako zerga arautzen duten xedapenak aplikatuko zaizkio. Errekargua abenduaren 31n sortuko da eta, eraikina hutsik dagoela ziurtatu ondoren, urtero kitatuko du Udalak, eraikina hutsik



dagoela aitortzen duen egintza administratiboa ematearekin batera. Errekargua ezarri ahal izateko, aipatutako erregelamendua onartuta egon beharko da.

Luzaroan hutsik dagoen higiezintzat joko da etxebizitza bat Udalak modu fidagarrian jakiten badu bi urtez jarraian ez dela ohiko bizilekua izan eta ez dela alokatu.

3.5. artikulua. Ohiko bizilekua denean, kuota osoko hobari hauek aplikatuko zaizkie familia ugaria diren subjektu pasiboiei:

Seme-alaba kopurua	Hileko soldata, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekiko (LAGS)					
	$x \leq \text{LAGS}$	$x: \text{LAGS} + \%10 \text{ arte}$	$x: \text{LAGS} + \%20 \text{ arte}$	$x: \text{LAGS} + \%30 \text{ arte}$	$x: \text{LAGS} + \%50 \text{ arte}$	$x: \text{LAGS} + \%60 \text{ arte}$
3	%45	%40	%25	%15	-	-
4	%45	%45	%40	%25	%15	-
5 edo >	%50	%45	%45	%40	%25	%15

X = Familia unitateko kide guztien soldaten batura zati familia unitateko kide kopurua.

Hobari eskaera Gizarte Zerbitzuetan egin beharko da, eta eskaerarekin batera agiri osagarri guztiak aurkeztu beharko dira. Sail horretako teknikariek familia-unitatea osatzen duten kide guztien "hileko soldata mailaren" berri emango dute. Eskaeraren gaineko erabakia Alkateak hartuko du Haziendako Batzorde informatzailearen txostena jaso ondoren.

3.6.- artikulua Behin betiko kalifikazioa eman ondoren, honako hobari hauek ezarriko dira 5 urtez eraikuntza berriko babes ofizialeko etxebizitzetan, eta baita horien garaje eta trasteleketan ere, proiektuan eta erregistroan etxebizitzari lotuta badaude; beti ere familia-unitatearen diru-sarrerara gordinaren arabera, familia-unitate horretako kideen arabera eta ondorengo baremo taularen arabera.

Familia unitateko kide kopurua	Hileko soldata, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekiko (LAGS)						
	$x \leq \text{LAGS}$	$x: \text{LAGS} + \%10 \text{ arte}$	$x: \text{LAGS} + \%20 \text{ arte}$	$x: \text{LAGS} + \%30 \text{ arte}$	$x: \text{LAGS} + \%40 \text{ arte}$	$x: \text{LAGS} + \%50 \text{ arte}$	$x: \text{LAGS} + \%60 \text{ arte}$
1-2	%45	%40	%25	%15	-	-	-
3	%45	%45	%40	%25	%15	-	-
4	%50	%45	%45	%40	%25	%15	-
5	%50	%45	%45	%45	%40	%25	%15
6	%50	%45	%45	%45	%45	%40	%25
7 edo >	%50	%45	%45	%45	%45	%45	%40



3.7.- artikulua. Ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuota osoaren %50eko hoberia ezarriko da energia berriztagarriaren sistemak jarri dituzten ondasun higiezinentzat. Hobari edo beherapen hori izateko, beroa sortzeko instalazioetako kolektoreek Administrazioaren homologazioa jaso behar dute, eta hoberia aplikatuko da instalakuntza egin dela ziurtatu ondorengo lehen 5 urteetan.

Hobari honetatik salbuetsita geratzen dira eraikuntza berriko higiezinak, indarrean dagoen Eraikuntzako Kode Teknikoak ezarritakoa betez, instalatuta daukatelako sistema hori.

3.8.- artikulua. Kuota osoaren %50eko hoberia ezarriko da ondasun higiezinentzat, ondasun horiek "Etxebizitza Hutsa Programa"ren baitan utzitakoak direnean, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuaren babesean. Beherapen hau aplikatzeko, Eusko Jaurlaritzak egindako ziurtagiria aurkeztu behar da Udaletxean.

Bigarrena

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA

Tasari Euskadiko Autonomia Erkidegoko KPlak irailetik irailera izandako igoera ezartzea proposatzen da.

Hirugarrena

HIRI LURREN BALIO IGOERAREN GAINEKO ZERGA

Koefizienteei dagokienez, gehienezko portzentajea finkatzea, eta tarifa taula bere horretan lagatzea proposatzen da.

II. PORTZENTAJE TAULA.

ALDIA

URTEKO PORTZENTAJEA.

Egungoa

Proposatutakoa

a) 1etik 5 urtera	3,6	3,6
b) 10 urte arte	3,4	3,4
c) 15 urte arte	2,75	3,1
d) 20 urte arte	2,75	2,9



III. TARIFA

a) 1etik 5 urtera	7,64	7,64
b) 10 urte arte	7,13	7,13
c) 15 urte arte	5,6	5,6
d) 20 urte arte	5,4	5,4

Laugarrena

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

Irailaren 29ko bileran hartutako konpromisoa betez, Pili Belategik bi taula aurkeztu ditu Eskoriatzan, Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin indarrean dauden tarifak alderatzeko. Lehenengo taulan ez dago Oñatiko daturik, baina, bigarreanean, bai. (aktarekin batera doaz taula biak)

Oñatin turismoen zenbait tarifa gainontzeko herrietan baino txikiagoak direnez, batez bestekoa handiagoa lehenengo taulan bigarreanean baino. Hala ere, bi tauletatik ondorioztatu daiteke Eskoriatzako tarifak Aretxabaletakoak, Arrasatekoak edo Bergarakoak baino txikiagoak direla, eta alde handiena 9tik 11,99 zaldi fiskalen arteko turismoetan dagoela.

Tarifak ikusi eta alderatuta, tarte bakoitzean 5 herrietako batez bestekoa eginda ateratako tarifa proposatzea erabaki da. Batez bestekoa KPIaren % 3ko igoera baino txikiagoa baldin bada, KPIa aplikatuko da.

Proposatutako tarifak hauek dira:

Ibilgailuen potentzia eta ibilgailu mota	Kuota (eurotan)
a) Turismoak	
9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	40,41
9-11,99 zaldi fiskal bitartekoak	80,83
12-13,99 zaldi fiskal bitartekoak	137,28
14-15,99 zaldi fiskal bitartekoak	194,32
16-19,99 zaldi fiskal bitartekoak	249,78
20 zaldi fiskal edo gehiagokoak	305,30
b) Autobusak	
21 plaza baino gutxiagokoak	183,78
21-50 plaza bitartekoak	261,76



50 plaza baino gehiagokoak	327,20
c) Kamioiak.	
1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarria dutenak	93,28
1.000-2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	183,79
3.000-9.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	261,77
9.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	327,20
d) Traktoreak.	
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	38,97
16-25 zaldi fiskal bitartekoak	61,26
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	183,79
e) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako erremolkeak eta erdierremolkeak	
750 kg baino gehiago eta 1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarria dutenak	38,97
1.000-2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	61,26
2.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	183,79
f) Bestelako ibilgailuak	
Ziklomotoreak	9,89
125 cc-ra arteko motozikletak	9,89
125 cc-tik gora eta 250 cc-ra arteko motozikletak	16,94
250 cc-tik gora eta 500 cc-ra arteko motozikletak	33,93
500 cc-tik gora eta 1.000 cc-ra arteko motozikletak	67,86
1.000 cc baino gehiagoko motozikletak	135,68

Hobarietako dagokienez, honako hauek sartzea proposatzen da:

Lehenengoa.- Hobaria jaso ahal izateko subjektu pasiboak egunean izatea zergaren aurreko kitapenen ordainketak.

Bigarrena.- Ondorengo hobaria sartzea:

Familia ugaria diren subjektu pasiboetarako, honako hobari hauek aplikatuko zaizkie zergaren kuota osoan. Salbuespena bizikidetzaren unitatearen ibilgailu bakarrari aplikatuko zaio.



Seme-alaba kopurua	Hileko soldata, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekiko (LAGS)					
	$x \leq$ LAGS	x : LAGS+ %10 arte	x : LAGS+ %20 arte	x : LAGS+ %30 arte	x : LAGS+ %50 arte	x : LAGS+ %60 arte
3	45%	40%	25%	15%	-	-
4	45%	45%	40%	25%	15%	-
5 edo >	50%	45%	45%	40%	25%	15%

X = Familia unitateko kide guztien soldaten batura zati familia unitateko kide kopurua.

“Hobaria aplikatu ahal izateko, interesatuek hobaria egiteko eskatu beharko dute. Hobari eskaera Gizarte Zerbitzuetan egin beharko da, eta eskaerarekin batera agiri osagarri guztiak aurkeztu beharko dira. Sail horretako teknikariek familia-unitatea osatzen duten kide guztien “hileko soldata mailaren” berri emango dute. Eskaeraren gaineko erabakia Alkateak hartuko du Haziendako Batzorde informatzailearen txostena jaso ondoren.

Gaur egun indarrean dauden hobariak honako hauek dira:

3.1.1. Zerga kuotaren %100eko hobaria izango dute ibilgailu historikoek, edo fabrikatu zen datatik zenbatuta hogeita bost urteko gutxieneko antzinatasuna dutenek. Fabrikazio data ezaguna ez balitz, lehenengo aldiz matrikulatu zeneko data hartuko da kontuan, eta matrikulazio datarik ezean, ibilgailu-mota edo aldaera hori fabrikatzeari utzi zitzaioneko data.

3.1.2. %75eko hobaria, kilometroko 120 gramo CO₂ baino gutxiago isurtzen duten ibilgailuen kuotan (g/km). Hobari hau izateko, ibilgailuen jabeek Eskoriatzan errolatuta egon, hobaria idatziz eskatu eta baldintzak betetzen dituztela egiaztatu behar dute (ibilgailuen ezaugarri teknikoak egiaztatzen dituen agiria aurkeztuta).

3.1.3. **28,02** euroko hobaria izango dute Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga kontuetarako enpresa jarduerara edo jarduera profesional edo artistikora lotuta dauden 14 eta 15,99 zaldi fiskal bitarteko autoek.

Hobaria lortu ahal izateko, interesdunak aurrez eskaera egin eta egiaztatu beharko du autoa jarduera horretara lotuta dagoela. Egiaztapena egiteko honako dokumentu hauetako bat aurkeztu beharko da:

- Autoaren zirkulazio-baimena. Baimenaren titularra hobaria eskatu eta autoari lotutako jardueran ari den enpresa izan beharko da. Aipatutako baimenean egoera



hori agertzen ez bada, enpresako ordezkari legalak egindako zinpeko aitortpenagatik ordezkatu daitezke. Bertan adierazi beharko da autoak enpresa jarduerarekin, profesionalarekin edo artistikoarekin zein lotura duen.

- Autoari lotutako jarduerari dagokion Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako atalean alta emanda dagoela dioen ziurtagiria.

Beste baldintza batzuk: - Jardueraren helbide fiskala Eskoriatzan izan beharko du.

- Eskaera urtero aurkeztu beharko da eta baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu.

Bosgarrena

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA.

1.- Fatxadak tratatzeko aurreikusitako % 1,5eko tasa % 5era igotzea proposatzen da. Arrazoa: Egiten zaie % 90eko hobaria.

2.- Elorretako zuzkidura-alojamenduak sustatzeko Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmena kontuan hartzea erabaki da.

2. *Elorretako zuzkidura-alojamenduak sustatzeko Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmena.*

Bere garaian Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean sinatutako hitzarmenaren arabera, Udalak ordenantza fiskaletan zenbait hobari jasotzeko konpromisoa hartu zuen. Horiek irakurri eta eztabaidatu ondoren, eta aurreko Udaltzak hartutako konpromisoak betetzeko, indarrean dauden hobarietan ondorengo aldaketak egitea proposatzea erabaki da:

5.3.4. Interes bereziko edo udal erabilerarako izendatzen diren eraikuntza, instalazio eta obretan (arrazoi sozial, kultural, historiko-artistiko edo lana bultzatzekoak direla medio) %95eko (lehen % 90ekoa zen) hobaria emango da zerga honek kitatzen dituen kuotetan.

Udalbatzarraren esku dago izendapen hori egitea.

5.3.6 Elbarrien irisgarritasuna hobetzeko obrek kuotaren %90eko beherapena izango dute, baldin eta honako hauek egiaztatzen badira:

Familia unitateko pertsonak daukaten elbarritasun maila, egin beharreko obra justifikatzen duena.

Gizarte Ongizateko Batzordearen aldeko erabakia, obrak elbarritasun-maila horri egokitzen zaizkiola adieraziz.



Hobari edo beherapenak irisgarritasuna hobetzeko diren obretan bakarrik emango dira. Hobaria jasoko duten obrak beste obra handiago baten zati badira, eskatzaileak aurrekontuan bereizita aurkeztu beharko ditu obra batzuk eta besteak.

Hobari bera egingo zaie elbarrien irisgarritasuna eta bizigarritasuna hobetzeko eraikuntza, instalazio eta obrei, administrazio publikoren batek edo horren menpeko erakunderen batek sustatutakoak baldin badira.

5.3.10.- % 50eko hobaria izango dute babes ofizialeko etxebizitzekin lotutako eraikuntza, instalazio eta obrek, administrazio publiko batek edo horren menpeko erakunderen batek sustatutakoak baldin badira, eta baita EAeko lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen zuzkidura-alojamenduekin lotutakoek ere.

Gaur egun indarrean dauden hobariak honako hauek dira:

5.3.1. Nekazaritza, abeltzaintza edota baso ustiaketatara lotutako eraikinetan edo instalazioetan egindako obrak:

* Hobari-eskaria jarduera nagusikotzat kalifikatutako ustiaketa baten titularrak egiten badu, eta ustiaketa hori EAEn lehentasunezkoztzat kalifikatuta badago, kuotaren %90eko hobaria izango dute ondorengo obra hauek:

- Fatxada berritzea.
- Teilatua berritzea.
- Baserria birgaitzea.
- Nekazaritzako, abeltzaintzako edo basoko instalazioetan egindako birgaitzea edo obra berria.

